


Izotz beroa

Nola eragiten dio presioak energiari?

Materialak

- Izotz-puska bat
- Paperezko plater bat
- Sardexka bat



Zer egin

1. Jarri izotz-puska paperezko platerean.
2. Zapaldu sardexkaz izotz-puska, eta mantendu hala pixka batean.
3. Kendu sardexka. Zer gertatu da?

Zer gertatzen da?

Izotza urtzen ikusi duzu. Izotz-puskaren gainaldea urtu egin da pixka bat, sardexkarekin eragindako presioa dela eta. Sardexkarekin eragindako presioak energia beroa sortu du. Eta bero horrek izotza urtu du.

